


atxia motxia



E  
iB  
AR  
KO

UMIEN  
KUCADERNUA

Atxia Motxia. Eibarko umien kuadernua-Ego Ibarra batzordea, 41  
Eibar, 2014


© Marrazkixak, Jose Antonio Azpilikueta  
© Testuak, Badihardugu (Aintzane Agirrebeña, Asier Sarasua)  
© Edizioarena, Eibarko udala

Marrazkixak: Jose Antonio Azpilikueta  
Testuak: Aintzane Agirrebeña; Asier Sarasua  
Editatzaillia: Ego Ibarra idazkaria

Eskerrak: Xabier Untzetabarrenetxeari, 3. orriko marrazkixaren egilliar  
ISBN: 978-84-89696-53-2





Eibar 1346xan sortu zan.  
Holakotxia zan orduan:



2

Urriak pasau ahala, asko aldatu da gure herrixa. Hamen dakazuz sasoi bateko 4 eraikin: ALFA lantegixa, Salon Teatrua, Untzagako jauregixa eta Indianokua (Zumaran jauregixa). **Gaur egun zer ete dago eraikin horrek zeguazen lekuan? Galdetu, galdetu aittitta-amameri!**



GAUZA TXIKI-TXIKIXAK BE IKUSTEN DIRA HONEKIN!

TENISERAKO BE BALIO DAU, BAIÑA NIK FRONTOIAN ERABILTZEN NEBAN!

OINIZ BE BAI, BAIÑA GURPILLEN GAÑIAN BE ONDO MOLDATZEN NINTZANNI!

♪ BEGIRA NAGO BEGIRA, GOIKO KAMIÑO BARRIRA... AIDE! AIDE! ♪

EGIN IRIBARRE! KLİK!

ZENBAT BI HAR EGIN BI HAR DIRAN BASARRIXAN!

IA, UMETXUOK, IPINI PUNTIA ORRIXAN ERDI-ERDIXAN ETA EGIN BOROBIL HAUNDI-HAUNDI BAT!

MMM... GAURKUAN USAIN GOZUA ATARA DAU JATEKUA K!

NIK DARABITTENA EZ DA PERRETXIKUAK BATZEO! NI FRONTOIRA JUATEN NINTZAN HONEKIN

HARIXA HARTU ETA...

ZE POLITTA NEGARRA ENTZUTIA, AMAN TRIPATIK URTENDAKUAN

GUREGAITTIK ESATEN JAKO EIBARRI "ARMAGINEN HERRIXA!"



Felisa Ventura



Carmen Peña



Eugenia Iriondo  
La Eibarresa



Felisa Loiola



Maria Magunazelaia



Maria Unzueta



Toribia Narbaiza



Sinfrosa Larrea



Victoria Ortuoste








Geronima Gorospe



Francisca Atxa



Angelita Lizarralde



3

Hamen dakazuz Eibarko 12 emakume.

**Pistak irakorritta, ia asmatzen dozun bakotxan lanbidia.**



4

Arpegi-zopa honetan Eibarko artista ezagun batzuk dagoz ezkutautea.

**Topauko dozuz?**



Ignacio Zuloaga Zabeleta  
(1870-1945)



Jacinto Olave Azpiluzi  
(1877-1957)



Indalecio Olanoguren Arrillaga  
(1887-1972)



Carlos Elgezua Lasuen  
(1898-1987)



Paulino Larrañaga Longarte  
(1918-2011)



Fernando Beorleaiu Beguiristain  
(1928-2008)



Daniel Txopitea Guinta  
(1950-1997)

5

Eibarko erdiguneko  
kaliak dakuzuz  
mapa honetan.


**la puzzlia osatzen  
dozun!**



## ZENBAT DIRAN, HAMAR DIRAN

Zenbat diran hamar diran  
zenbat diran ikusi,  
oillua kakarixetan dago  
oillarra hari ikasten,  
txakurtxua josten eta  
arratoitxua labretan,  
txindurrixa barriketan,  
kakalardua ametsetan,  
eperra nabotan,  
idixa dantzan,  
astua danbolin jotan,  
honen erdi-erdixan zeguan  
zorrixa barrez ittotzen.





Ego errekoa pasatzen da gure herritik, baiña sarrितan ez da ikusten nundik nora doian.

Honek eraiñok erreka inguruan dagoz.

**Ipinizu bakotxa beran lekuan.**

# SANBLASAK

6 ARRAUTZARI  
2 ZURINGO KENDU  
GAIÑEKO  
ZURIXANDAKO

URUNA, ANISA  
ETA 200 GRAMO  
MANTEKILLA  
BOTATZEN JAKOZ

NAHASTAU  
ONDO  
10 KOILLARAKADA  
AZUKREKIN

MASIARI  
PIXKANAKA-PIXKANAKA  
URUNA  
GEHITZEN JAKO

OPILLERI  
FORMIA  
EMONDAKUAN...



... LABAN SARTU  
200 GRADUAN  
20-30 MINUTUAN

GAIÑEKO ZURIXA  
EGITTEKO

TA  
ONTZITXO  
BATEN  
SU MOTELIAN  
DESEGIN  
ARTE

BATIDU,  
BIHAR DABEN  
LODITTASUNA  
LORTU ARTE

TA  
SANBLASEN  
GAIÑIAN  
ZABALDU

E DEERRA!!!

OIN  
ZUENTXANDIA!



10 KOILLARAKADA  
MASIANDAKO

8 GAIÑEKO  
ZURIXANDAKO




6 ARRAUTZA

200 GR. MANTEKILLA

ANIS ESENTZIA URUN  
KILO BATENDAKO


URUN  
KILO BAT





**9** GABON NESKA-MUTILOK! HEMEN DUZUE  
 EIBARKO ASTELENA PILOTALEKUA ERAIKITZEKO  
 AUKERA EZINHOBEA! IZAN UNTSA!







11

Eibar futbol taldea primerakua izan da beti!


**Jantzizozuez erropak jokalarixeri, hoztu aurretik!**



12


Eibarren bizikletak egitteko lantegi  
mordua zeguazen.


Munduan zihar zenbat jente ibili ete da  
Eibarren egindako bizikletekin!



13

Honek tresna  
danok Eibarren  
egindakuak dira.  
**la asmatzen dozun  
zein ez daguan  
errepikatuta.**









15

TEKNIKERREN  
JAI XOTAKO  
NERE LEHENGUSU-LEHENGUSIÑA  
BIKIXAK  
NUN ETE DAGOZ?

LAGUNDUKO  
DESTAZU  
TOPATZEN?







16

Pantxika Sumendixa basarrixan bizi da. Arratera juatia nahi dau, baiña ez daki zein dan bide zuzena.  **Lagunduko detsazu?**


# PANITXIKKA



## ATXIA MOTXIA


Atxia motxia perolipan  
nere semea errotan.  
Errotara nindoiala  
topau neban asto bat,  
kendu netsan buztan bat,  
ipini netsan beste bat:  
errota txikiak klin-klan.

Atxia motxia perolipan,  
nere semea errekan.  
Errekara nindoiala  
topau neban erbi bat,  
kendu netsan begi bat,  
ipini netsan berri bat:  
erreka txikiak plist-plast.



GABERDIKO  
MOZOLUA  
ATHENE NOCTUA

Gabeko bizilagun,  
sorginen lagun.  
Begi haundi,  
gabeko harrapakari.  
Begira-begira dago,  
heguak zabal-zabal egin,  
eta... zasti!  
sagua harrapatzeko.




**ERNARIA**  
*Hirundo rustica*



**HORMATXORIXA**  
*Passer domesticus*




**TXEPETXA**  
*Troglodytes troglodytes*



**OKILLA**  
*Picus viridis*



**TXITXALAPURRA**  
*Accipiter nissus*



**BILIXA**  
*Anas platyrhynchos*

### **TXEPETXA**

Txepetx txiki,  
ponpoxo eta zalapartarixa.  
Zertan zabiz beti sasitartian?  
Zergaittik beti buztana tente?  
Zergaittik beti harrapataka?

### **HORMATXORIXA**

Txori txiki eta pottoko ederra.  
Lotsabako samarra, Eibarko edozein  
kale eta ingurunetan topauko dogu.  
Zertan? Guk lurrera botatako ogi-apur,  
pipa, gusanito eta litxarrerixak jaten.  
Habixia hemen ipini, edo han ipini,  
ez jako larregi ardura hormatxorixari:  
teillatupe, semaforo zahar, horma  
zati... Han, hamen edo edonun,  
hormatxorixa beti ugari.

### **ERNARIA**

Txorixen artian, ba ete ernaria baiño  
txori ezagun eta maittagarrixagorik?  
Udabarrittik urrira bittartian, Eibarko  
basarri eta mendixetan ikusiko dittugu  
kantu kantari, beti alai, beti jostalari.  
Eta neguan? Eibartik alde egin eta  
Afrikara, Zaire, Kamerun eta inguruko  
herrialde misterioetsuetara. Hango  
baztarrak be euren txorrotxiuekin  
alaitzera.

### **BILIXA**

Bili-bili dabil bilixa ibili.  
Bili, paitta eta ahate, gauza bera beti.  
Kua-kua, kuo-kuo, badoia balan-bilin.

### **TXITXALAPURRA**

Basarri ataixan oillarra kukurruka.  
Eta oilluen artian, txitxa txikixak  
jolasian. Baiña hegazti baten keriza  
bildurgarrixa agertu da! Txitxalapurra!  
Hantxe dator txitxa billa! Alde danok!  
Ezkutau txitxalapurrak  
harrapau aurretik!


### **OKILLA**

Ttok-ttok-ttok, ttak-ttak-ttak,...  
hor dabil okilla, bere moko luze  
horrekin zuhaitz-enborrak zulatzen.  
Moko-luze eta mihi-luze;  
gorputz berde eta buru gorri.  
Txori ederragorik!  
Eta zeri begira dago?  
Han! Txindurrixak!  
Horixe da okillentzat gozuen,  
txindurri-platerkada haundi bat afaltzeko!






**PAGUA**  
*Fagus sylvatica*



**HARITZA**  
*Quercus robur*



**ARTIA**  
*Quercus ilex*



**GOROSTIXA**  
*Ilex aquifolium*






Zuhaitzen fitxak osatzia proposatzen detsugu: orrixak topau, egun batzutan sikatzen laga, eta zuhaitz bakoetxan orrixa beran argazkixan atzekaldian pegau.






**INTXAURRONDUA**  
*Juglans regia*




**URKIXA**  
*Setula pendula*



**GAZTAINONDUA**  
*Castanea sativa*





**LIZARRA**  
*Fraxinus excelsior*





Zuhaitzen fitxak osatzia proposatzen detsugu: orrixak topau, egun batzutan sikatzen laga, eta zuhaitz bakoetxan orrixa beran argazkixan atzekaldian pegau.






2




3


Emakumiena: Felisa Ventura: analistia; Eugenia Iriondo "La eibarresa": raketistia; Maria Magunazelaia: txirrindularixa; Toribia Narbaiza: panderojolia; Carmen Peña: andereñua; Felisa Loiola: sukaldarixa; Maria Unzueta: zesta puntako pelotarixa; Sinfrosa Larrea: jostuna; Victoria Ortuoste: argazkilarixa; Geronima Gorospe: parteria; Francisca Atxa: basarritarra; Angelita Lizarralde: kaxagiña




4



5




11




13

Tresnena: ez dozula topau?  
Kulatia zan barren!



15



16

